

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Arratzua-Ubarrundia udalerriko kontzejuei obrak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea

Udalbatzak, 2023ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran, Arratzua-Ubarrundia udalerriko kontzejuei obrak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren aldaketari hasierako onspena ematea erabaki zuen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da espedientea, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, aztertu ahal izateko eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Durana, 2023ko otsailaren 28a

Alkatea

M^a BLANCA ANTEPARA URIBE